

Transmisioa gure esku dago

Gure esku dago, bai, hein handi batean, euskara eguneroko hizkuntza izatea; euskara komunikaziorako ohikoa izatea. Argi dago euskararen alde gaudela gehienok eta, bide horretan, lan handia egiten ari garela. Ezin da ahaztu azken 30 urteotan eskoletatik eta euskaltegietatik 300.000 euskaldun inguru irabazi direla; hortaz, bada aurrerapausoa. Baina bide horretan egon da uste oker bat, seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatzearekin denbora laburrean normalizazioa lortuko genuela, euskaraz biziko zirela. Belaunaldi berriek, orain debekurik gabe eta euskara ikasita, berez hasiko zirela normaltasunez erabiltzen. Zati baten hori eman dela egia bada ere, argi ikusten da, gaur egun, bilakaera hori eten egin dela, erabileran ematen zen irabazia geratu egin dela.

Hortaz, parametro hau ez da automatikoa: ikastea- ezagutzea- erabiltzea. Beste faktore asko dago bide horretan eta horietako bat da transmisioarena. Hizkuntzen transmisioa bide ezberdinetatik egin eta eragin daiteke:

- Alde batetik, dakienak ingurukoei eta seme-alabei euskaraz mintzatuz. Etxeko hizkuntza euskara izanez. Bide hau oso eraginkorra da eta duela urte gutxi arte oso ondo funtzionatu du. Etxeetako transmisio horrek mantendu zuen euskara, bestelako biderik ez zegoenean. Badirudi, baina, gaur egun familia askotan ez dela transmisio hori ematen, hizkuntz gaitasun zailtasunak daudelako. (Familia mixto asko, euskara jakin bai baina gutxi, ohiturarik ez, erderarako joera...)
- Bestetik, ez dakienak seme-alabak euskaraz hezteko ereduera eramanez, euskara lantzeko aisialdi guneetan izena emanez... Eta honetan bide handia eman da, jakina. Baina horrekin eta horretan geratzeko joera okerra ere eman da, ardura eskoletan delegatu da, haiek lortuko zutelakoan.
- Azkenik -eta ez garrantzia gutxiagokoa- euskararenganako lotura, sentimendua eta joera zabalduz. Euskara gure parte dela eta ikastea zein erabiltzea denontzat onuragarria izango dela hedatuz. Langintza honetan gizarte osoak hartu behar du parte, jakina, eta eredu izan behar dugu denok.

Eta hau da gurasook daukagun erronka, hiru arlo hauetan eragitea. Horregatik, eta hiru modu horietan eragiteko aukera izateko, gurasook prestakuntza behar dugu. Seme-alabekin lan egokia egiteko, irakasleekiko konplizitatea eta elkarlanaz aparte, euskara gure egin behar dugu.

Korrika bukaeran Amets Arzalluzek esan zuen bezala, Ama-hizkuntza guk aukeratzen duguna da, eguneroko harremanetarako aukeratzen duguna, eta ez jaiotzez tokatu zaiguna. Edonork har dezake euskara bere Ama-hizkuntzat, nahi badu behintzat. Euskaldun izatea erabakitzeke aukera dugu denok.

Denon artean lortuko dugu; transmisioa gure esku dago.